**AGINDUA, 2025ko urtarrilaren 30ekoa, Bigarren Lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena, Inklusiorako Euskal Kontseiluaren ordezkarian izendapena aldatzen duena.**

2024ko azaroaren 6an jarri zen indarrean 307/2024 Dekretua, urriaren 22koa, Inklusiorako Euskal Kontseiluarena, 2024ko azaroaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua (245. zk.).

2024ko azaroaren 15ean, Bigarren Lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak organoaren idazkaritza izendatu zuen.

2024ko abenduaren 16an, Inklusiorako Euskal Kontseiluaren ordezkariak izendatzeko agindua eman zen, 2024ko abenduaren 27an EHAAn argitaratu zena (251 zb.).

Ondoren, akats material bat identifikatu zen eta beste izendapen-proposamen bat jaso zen, eta 2025eko urtarrilaren 2ko Aginduaren bidez izendapenak aldatu ziren.

Argitaratu ondoren, hainbat izendapen aldatu zirela jakinarazi zen, eta 2025eko urtarrilaren 22ko Aginduaren bidez izendapenak aldatu ziren.

2025eko urtarrilaren 23an, EUDELek ordezko kideak izendatzeko proposamena jakinarazi zuen.

Dekretuaren 8.1 artikuluaren arabera, bokalak eta haien ordezkoak Eusko Jaurlaritzan inklusiorako-arloko eskumena duen saileko titularraren aginduz izendatuko dira.

Horregatik guztiagatik, honako hau

**EBAZTEN DUT**

**LEHENGOA.-** 2024ko abenduaren 16ko Agindua aldatzea, udalerriak ordezkatzen dituzten kideei dagokienez, eta honako hauek izendatzea:

| Titularra | Ordezkoa |
|---|---|
| **Udalak** | |
| Ainhoa Basabe Meléndez, Sestaoko | Txerra Molinuevo Laña, Amurrioko |

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

| | |
|---|---|
| alkatea. | alkatea. |
| Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia, Durangoko alkatea. | Natividad López de Munain Alzola, Elburgo/Burgelu alkatea. |
| Rocío Vitero Pérez, Vitoria-Gasteizko zinegotzia. | María del Río Pereda, Bilboko zinegotzia. |
| Oihane Henales Zarraga, Sestaoko zinegotzia. | Olaia Durarte López, Donostiko zinegotzia. |
| María José Blanco Gavieiro, Portugaleteko alkatea. | Laura Fernández Fernández, Amurrioko zinegotzia. |
| Aitor Larrinaga García, Balmasedako zinegotzia. | Ruth Martínez Sánchez, Etxebarriko zinegotzia. |

**BIGARRENA.-** Inklusiorako Euskal Kontseiluaren osaera argitaratzea agintzea gardentasunaren atariaren bidez, Inklusiorako Euskal Kontseiluari buruzko urriaren 22ko 307/2024 Dekretuaren 17. artikuluaren 2. apartatuarekin eta Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 144.2 artikuluarekin bat etorriz.

**HIRUGARRENA.-** Agindu honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 30a

**MIGUEL TORRES LORENZO,**

**Bigarren lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua.**